



**SEDAZIOA EGIN AURRETIKONTUAN HARTZEKO GOMENDIOAK**  
**RECOMENDACIONES PREVIAS A LA SEDACIÓN**

Miaketa endoskopikoa egin behar dizute, horretarako medikazio lasaigarria eta analgesikoa eman behar dizute.

Hori dela-eta, gomendio hauek bete behar dituzu:

1. Ekarri **arropa eroso**a eta kentzen erraza.
2. Makillajerik eta azazkal-esmalterik gabe etorri
3. **Lagunduta etorri**; pertsona heldua izan dadila, edozer gertatuz gero, zutaz arduratzeko modukoa.
4. Kontuan izan etxera **kotxez (zuk gidatu gabe)**, edo taxiz **itzuli** beharko duzula.
5. Miaketa egiten den gelan sartu aurretik, kendu **hortz-protesiak** eta/edo bestelako apaingarriak (erlojua, eraztunak, eskumuturrekoak...). **IZAN ERE, HORRELAKORIK EZ EKARTZEA GOMENDATZEN DA.**
6. **Ez hartu jaki solidorik** gauerditik aurrera.
7. Goizean, **dutxatu zaitez**, eta garbitu ahoa ura irentsi barik.
8. Miaketaren egunean, **ez hartu zure ohiko medikamentuak**; miaketaren ondoren hartuko dituzu. **Bronkodilatadoreak erabili ohi badituzu**, probaren aurretik erabili.
9. **Diabetikoa bazara**, ez hartu pastillarik ez intsulinarik. Prozeduraren aurretik glukosa neurtuko dizute, eta behar dituzun medikamentuak emango dizkizute
10. **Hipertentsioa baduzu**, arteria-presioa kontrolatuko dizute.
11. **Sintron bidezko tratamenduan** bazaude, bertan behera utzi beharko duzu 4 egun lehenengo.
12. **Bihotz-balbularik badaukazu**, hitzordua baino 45 minutu lehenago etorri beharko duzu, behar den profilaxi antibiotikoa hartzeko.
13. **Ahal dela, egon lasai**, zure onerako izango da.

Se le va a realizar una exploración endoscópica, en la que será necesario administrarle medicación sedante y analgésica.

Deberá tener en cuenta y seguir las siguientes recomendaciones:

1. Traiga **ropa cómoda** y fácil de quitar.
2. Venga sin maquillaje ni esmalte de uñas.
3. Venga **acompañado** por una persona adulta capaz de hacerse cargo de usted en cualquier circunstancia.
4. Tenga previsto que deberá **volver** a su domicilio en **automóvil (sin conducirlo usted)** o en taxi.
5. Cuando entre en la habitación donde se efectuará la exploración, se habrá quitado con anterioridad las **prótesis dentales** y/o cualquier tipo de **aderezo** (reloj, anillos, pulseras...), **QUE SE RECOMIENDA NO TRAER.**
6. **No ingiera** ningún alimento sólido después de medianoche.
7. Por la mañana **dúchese** y lávese la boca sin tragar agua.
8. El día de la exploración **no tome su medicación** habitual, la tomará después de la exploración. **Si utiliza habitualmente broncodilatadores**, utilícelos antes de la prueba.
9. **Si es usted diabético**, no tome las pastillas ni se ponga la insulina. Se le realizará antes del procedimiento una determinación de glucosa, y se le administrará la medicación que precise.
10. **Si es usted Hipertenso**, se le controlará la tensión arterial.
11. **Si está en tratamiento con Sintron**, deberá haberlo suspendido 4 días antes.
12. **En caso de ser portador de Prótesis en las Válvulas cardíacas**, deberá acudir 45 minutos antes de la cita para administrarle la correspondiente profilaxis antibiótica.
13. **Procure estar tranquilo**, usted será el más beneficiado con ello.